

BALORE PROPOSAMENA

Iraungitzear dauden produktuak aprobetxatzen ditugu eta horrela ez dira zakarretara botatzen. Honekin, gaur egungo zabor kantitatea murriztea lortuko dugu. Ezaugarri honek desberdinduko gaitu besteengandik. Azken bezeroek gure plataforma aukeratuko dute bertako produktuak merkeagoak direlako eta, aldi berean, ingurumenari laguntzen ari direlako.

Gure lehiakideak "Too good to go" aplikazioa eta "Encantado de comerte" dira eta hauengandik bereizten gaituzten ezaugarriak:

- Jasangarritasuna (kuantitatiboa). Gure proiektuak gaur egungo zabor gehiegikeria murrizten lagunduko duenez jasangarritasunean paper handia jokatuko du iraungitzear dauden janariei beste aukera bat emango diegulako. Hauek bidaltzerakoan bidalketa ekologikoa izango dugu UPSko furgoneta elektrikoak erabiliko ditugulako.
- Prezioa (kuantitatiboa)
- Erosotasuna (kualitatiboa). UPS enpresa bezeroek eskatutako produktua hauei etxera eramateaz arduratuko da bezeroak dendara erostera joan behar ez daitezen.
- Berritasuna. Enpresei beste aukera bat emango diegu bere produktuak saltzeko (kuantitatiboa).

